

## BIZITZAKO PASADIZOAK

### HELBURU KOMUNIKATIBOAK

- **Hizkuntzarekin gozatu eta euskararekiko atxikimendua handitu.**
- **Oinarrizko hizkuntza formak ulertu eta ekoitzi (idatziz/ahoz):** noiz, non, norekin, senitartekoen lexikoa, aditza lehenaldian (izan/ukan aditz laguntzaileak), ekintza-aditzak.
- **“Elkar” partikula ezagutzen eta erabiltzen hasi.**
- **Kontakizunen egitura orokorra ezagutu eta barneratu.**
- **Idatzizko euskarrietatik abiatuta, ahoz kontatzeko gaitu.**



## ANTOLAKETA

- 5-6 asteko lanketa: urt 21 –ots 20.
- Saio bakoitzean 20 min (salbuespena 1. eguna): 5-10 min ikasleen ekoizpenak eta beste 5-10 min dinamikak.
- Beti musika berdina jarriko da hasieran (Esne Beltza).
- Talde antolaketa: 4-5 ikasleko taldeak, egunero talde batek kontaketa, banakako ekoizpena / 2. gaian egunero bi ikaslek, banakako ekoizpena.
- Gai bakoitzak 5-10 eguneko lanketa.
- Garrantzitsua esku-hartzeari denbora eskaintzea: irakasle bakoitzak beharraren arabera esku-hartzeak egingo ditu. Taularen ezkerreko zutabean EKINTZAK daude eta eskuineko zutabean ESKU-HARTZEAK diseinatu dira.

## GOMENDIOAK

- Taldekatzeak egitean, saiatu taldeak orekatzen (talde bakoitza heterogeneoa).
- Gozatuz ikasteko gune goxoa eraiki.
- Errutina konplexuagotuz doa: saio bakoitzean erronka linguistiko bat (hizkera jasoago edo zehatzagoa) gehitu behar zaio taldeari.
- Irakasleak non jartzen du fokua aldiro?  
GARRANTZITSUA.
- Bi liburu ikasleek tartea dutenean irakurri eta gozatzeko:
  - Izenburua: Anekdotak/ **Egilea:** Ruben Ruiz Perez  
**Argitaletxea:** Pamiela 2008
  - Izenburua: Nik papaita, zuk papaita:  
(igarkizunak, olerkizunak eta igarkilimak)/**Egilea:** Xabier Olaso Bengoa /**Argitaletxea:** Pamiela 2017

## ERRUTINA: BIZITZAKO PASADIZOAK

### 1. BIHURRIKERIAK: elkarri txikitako bihurrikeriak kontatuko dizkiogu (zurea edo inguruko batena).

Iraupena: urt 21- urt 29

#### EKINTZAK

#### ESKU-HARTZEAK

#### Aurretiko lanak:

- ✓ **Taldekatzerako irizpideak zehaztu:** saiatu taldeak orekatzen, alegia, hizkuntza gaitasuna eta erabilera aldetik heterogeneoak izan daitezen, ahal den neurrian. 4-5 ikasleko taldeak.
- ✓ **Espazioa antolatzeke behar diren materialak prestatu:** hautatu gune goxo bat. Esaterako, ikasle bakoitzak kuxin bat ekarriko du etxetik eta borobila osatuko dugu denon artean. Izan daiteke bestela, alfonbran, elkarren ondoan...

#### 1.EKINTZA (40 min):



- Errutina girotuko duen **musika jarri:** <https://www.youtube.com/watch?v=i1yBZh4Gbw0>
- **Ikasleak errutinaren txokora eraman** musika entzuten ari diren bitartean.
- Irakaslea **girotzen hasiko** da, ikasleak **motibatzen** hasteko aukera da:
  - Lehenik garrantzitsua da **txokoari zentzua ematea:** konfiantzaz komunikatzeko gunea izango da, oso garrantzitsua da elkarri entzuteko prest egotea eta hor kontatzen diren gauzak bertan geratuko direla adieraztea (sekreturen bat kontatzen bada, bertan geldituko da).
  - **Girotzen jarraitzeko:** *guztiok elkar ezagutzen dugu baina ba al dakigu gure ondokoaren sekreturen bat...edo bihurrikeriaren bat....nik ere txikitari egin nuen baten bat.... zer iruditzen datozen asteetan taldeka antolatu eta gure bizitzako gertaerak elkarri kontatzen badizkiogu? Gureak edo gure ingurukoak...? Gogoan duzue baten bat?*
- Irakasleak **eredu** bat emango du (A fitxa).








A fitxa.pdf



B fitxa.pdf

<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Ereduaren eskema atera</b> eta zereginaren <b>kontsigna</b> eman (B fitxa).</li> </ul>	
<p><b>2.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Gogoratu</b> zein den <b>gure txokoa, girotu, musika jarri (ikus 1.ekintza).</b></li> <li>▪ <b>Lehenengo ikasle taldea hasiko da</b> (guztion aurrean, borobilean, eserita...) <b>eta bakoitzak bihurrikeria bat</b> kontatuko du, <b>eskemaren laguntzaz.</b></li> <li>▪ <b>Talde osoaren ekoizpena grabatu:</b> kamera, giro-mikrofonoa eta, ahots grabagailua erabiliko dira.</li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Poliki-poliki ikasleen <b>ekoizpenean esku-hartzen</b> hasiko gara. 1.taldeak bere ekoizpena egin ondoren, irakasleak galderak proposatuko ditu fokua hainbat hizkuntza-egituretan jartzeko helburuarekin. <b>Hizkuntza beharrak irakasleak hasieratik izango ditu gogoan (C fitxa).</b></li> <li>▪ <b>Etxean ikertzeko lana:</b> familiako zuhaitz genealogikoa osatu etxekeoen laguntzarekin (C fitxa).</li> </ul>	 <p>C fitxa.pdf</p>
<p><b>3.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Gogoratu</b> zein den <b>gure txokoa, girotu, musika jarri (ikus 1.ekintza).</b></li> <li>▪ Bigarren ikasle taldea hasiko da eta <b>bakoitzak bihurrikeria bat</b> kontatuko du, <b>eskemaren laguntzaz.</b></li> <li>▪ <b>Talde osoaren ekoizpena grabatu:</b> kamera, giro-mikrofonoa eta, ahots grabagailua erabiliko dira.</li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Etxean egindako <b>zuhaitz genealogikoa berreskuratu.</b> Irakasleak ere eginda ekar dezala (D fitxa).</li> <li>▪ Hurrengo taldeari datorren egunerako <b>kontsigna</b> eman.</li> </ul>	 <p>D fitxa.pdf</p>
<p><b>4.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Ikasle talde batek bihurrikeria bat</b> kontatuko du banaka, <b>eskemaren laguntzaz.</b></li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Familiako lexikoa</b> lantzeko ariketak (E fitxa)</li> </ul>	

<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Hurrengo taldeari</b> datorren egunerako <b>kontsigna eman + etxerako lanak.</b></li> </ul>	 E fitxa .pdf
<p><b>5.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasle talde batek <b>bihurrikeria bat</b> <b>kontaktuko</b> du <b>banaka</b>, eskemaren laguntzaz.</li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Familiako lexikoa</b> lantzeko ariketak (E1 fitxa)</li> </ul>	 E1 fitxa .pdf
<p><b>6.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasle talde batek <b>bihurrikeria bat</b> <b>kontaktuko</b> du <b>banaka</b>, eskemaren laguntzaz.</li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Jarraian proposatzen diren ariketetatik, bat edo bi aukeratuko dira.</b>  <u>Oharra:</u> ikasleen <b>beharren arabera hautatuko da</b> zein ariketa inplementatu, horretarako, oso garrantzitsua da kontuan hartzea <b>jarduera bakoitzak zein hizkuntza-helbururi</b> erantzuten dion. <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Deklinabide markak lantzeko ariketak (F fitxa)</li> <li>✓ Denborazko esaldiak lantzeko jolasa (G fitxa)</li> </ul> </li> </ul>	 F fitxa .pdf   G fitxa .pdf
<p><b>7.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasle talde batek <b>bihurrikeria bat</b> <b>kontaktuko</b> du <b>banaka</b>, eskemaren laguntzaz.</li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Instituzionalizatu.</b> Aurreko egunetan landutako alderdietan (lexikoa, kontaktaren eskema, deklinabidea...) jarriko da fokua: zein egitura agertu den, zein lexiko barneratu den, zer gertatuko zaien lagungarri hurrengo errutinerako....ikasleekin batera ezagutza adostu eta jaso egingo da horma-irudietan. Horma-irudi horiek lanabes eta bitarteko izango dira hurrengo errutineterako.</li> <li>▪ <b>II gaiari hasiera eman</b> (H fitxa).</li> </ul>	 H fitxa .pdf
<p><b>2. PERNANDOKERIAK: Pernando Amezetarraren pasarteak kontaktuko ditugu.</b></p>	

**Iraupena: urt 30-ots 8**

**1.EKINTZA:**

- **Testuinguratu:** Pernando Amezketarra zein den ezagutu, bere bizitza, xelebrekeriak... (irakasleak eramango du informazioa edo gelan bila daiteke). INFORMAZIOA [hemen](#).
- Pernandoren bizitzako **anekdota bat irakasleak kontatu ahoz** (I fitxa).  
**Pernandoren bideo bat ikusi** eta guztion artean **komentatu pasadizoa:** <https://www.youtube.com/watch?v=iSFFvkkuCvE>  
**Oharra.** Bideoa ikusteko gomendioak: helburua ez da ikasleek Pernandoren umorea erabat ezagutu eta ulertzea baina, bide horretan saiakera egin nahi da. Horretarako, oso garrantzitsua da irakasleak egingo duen aldamiajea ikasleei ulermen estrategiak eskainiz. Esaterako, irakasleak tarteka bideoa gelditu eta ulermena ziurtatzeko galderak egingo ditu: *nork uste duzue lapurtu duela txerria, zergatik? Zergatik dago txerria sehaskan?*
- Datozen egunetarako **kontsigna eman** (J fitxa).
- **Etixerako lana:** ikasleek Pernandoren pasarte bat irakurri (J fitxa).



I fitxa.pdf



J fitxa.pdf

**2.EKINTZA:**

- Berreskuratu Pernandoren bizitzako anekdota eta **ereduaren eskema atera** (K fitxa).
- **Etixerako lana:** ikasleek Pernandoren pasarte bat irakurri (L fitxa).



K fitxa.pdf






L fitxa.pdf




**3.EKINTZA:**

- **Etxean irakurritako** Pernandoren anekdota berreskuratu eta **guztionean irakurri eta eskema atera.**
- Pernandoren **bideo bat ikusi eta** guztion artean **komentatu pasadizoa, eskema atera:**  
[https://www.youtube.com/watch?v=v2fvV\\_iWhY0](https://www.youtube.com/watch?v=v2fvV_iWhY0)  
**Oharra.** Bideoa ikusteko gomendioak: helburua ez da ikasleek Pernandoren umorea erabat ezagutu eta ulertzea baina, bide horretan saiakera egin nahi da. Horretarako, oso garrantzitsua da irakasleak egingo duen aldamiajea ikasleei ulermen estrategiak eskainiz. Esaterako, irakasleak tarteka bideoa gelditu eta ulermena ziurtatzeko galderak egingo ditu.
- Lehenengo taldeari datorren egunerako **kontsigna eman, pasarteak banatu** (M fitxa).




M fitxa.pdf

<p><b>4.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hiru ikaslek <b>asmakizunak kontatuko dituzte, banaka.</b> Eta, bi ikaslek Pernandoren pasarte bana kontatuko dute, <b>banaka. Kontatzerakoan papera gero eta gutxiago erabiliko da.</b></li> <li><b>Aditzen lanketarekin hasi:</b> izan orainaldia + lehenaldia (N fitxa).</li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hurrengo taldeari datorren egunerako <b>kontsigna eman, pasarteak banatu</b> (M fitxa) + asmakizunak zeinek kontatuko dituen adostu.</li> </ul>	 <p>N fitxa.pdf</p>
<p><b>5.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hiru ikaslek <b>asmakizunak kontatuko dituzte, banaka.</b> Eta, bi ikaslek Pernandoren pasarte bana kontatuko dute, <b>banaka. Kontatzerakoan papera gero eta gutxiago erabiliko da.</b></li> <li><b>Aditzen lanketarekin jarraitu</b> (Ñ fitxa).</li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hurrengo taldeari datorren egunerako <b>kontsigna eman, pasarteak banatu</b> (M fitxa) + asmakizunak zeinek kontatuko dituen adostu.</li> </ul>	 <p>Ñ fitxa.pdf</p>
<p><b>6.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li><b>Gaur ezberdin antolatuko da errutina.</b> Lehenik, hiru ikaslek <b>asmakizunak kontatuko dituzte, banaka.</b> Ondoren, “nik nuen...” (ukan) kanta <b>lehenaldian</b> abestu. Jarraian, ikasleei eskatu ikaskideek kontatuko dituzten pasadizoetan “ukan” aditza duten esaldiak jasotzeko (irakasleak ere egingo du).</li> <li>Bi ikaslek Pernandoren pasarte bana kontatuko dute, <b>banaka. Kontatzerakoan papera gero eta gutxiago erabiliko da.</b></li> <li><b>Saio OSOA grabatua: ikasleen ekoizpena eta ondorengo lanketa</b> (kamera, giro-mikrofonoa eta, ahots grabagailua )</li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li><b>Ikasleek ekoitzi</b> duten kontaketa <b>“Ukan” aditza duten esaldiak azaleratu</b> (erosi zuen...) eta aditzak <b>azpimarratu: zuzenak al dira esaldiak? Ezagutzen genituen esaldi horiek? Erabiltzen ditugu?</b> Arbelean jaso. Irakasleak, <b>ELKARKARIAK</b> ere aipatuko ditu eta agertutako adibideen gainean gogoeta egingo da. <b>Era horretara gogoeta metalinguistikoa sustatu nahi da.</b></li> <li>Hurrengo taldeari datorren egunerako <b>kontsigna eman, pasarteak + asmakizunekin lotutako bideoa ikusi</b> (irakaslearen esku)(M+O fitxa).</li> </ul>	 <p>O fitxa.pdf</p>
<p><b>7.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li><b>Hiru ikaslek asmakizunak kontatuko dituzte, banaka.</b> Nahi izanez gero, zuloen asmakizuna ikusi (ez bada aurreko saioan ikasleekin landu, O fitxa).</li> </ul> <p><u>Oharra.</u> Bideoa ikusteko gomendioak: helburua ez da ikasleek Pernandoren umorea erabat ezagutu eta ulertzea baina, bide</p>	

<p>horretan saiakera egin nahi da. Horretarako, oso garrantzitsua da irakasleak egingo duen aldamiajea ikasleei ulermen estrategiak eskainiz. Esaterako, irakasleak tarteka bideoa gelditu eta ulermena ziurtatzeko galderak egingo ditu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Bi ikaslek Pernandoren pasarte bana kontatuko dute, <b>banaka. Kontatzerakoan papera gero eta gutxiago erabiliko da.</b></li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasleek ekoitzi duten <b>asmakizunean eta pasarteetan “Ukan/Izan”</b> aditza duten <b>esaldiak azaleratu</b> (borobila da/ erosi zuen...) eta aditzak <b>azpimarratu</b>: <i>zuzenak al dira esaldiak? Ezagutzen genituen esaldi horiek? Erabiltzen ditugu? Arbelean jaso.</i> Irakasleak, <b>ELKARKARIAK</b> ere aipatuko ditu eta agertutako adibideen gainean gogoeta egingo da.</li> <li>▪ Hurrengo taldeari datorren egunerako <b>kontsigna eman, pasarteak + asmakizunak</b> (M fitxa).</li> </ul>	
<p><b>8.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasle talde batek <b>asmakizunak kontatuko ditu, banaka.</b></li> <li>▪ Ikasle batek Pernandoren pasarte bat kontatuko du. <b>Kontatzerakoan papera gero eta gutxiago erabiliko da.</b></li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Ekintza-aditzen lanketa</b> (P fitxa).</li> </ul>	 P fitxa.pdf
<p><b>3. UDA-TXIRTA: udara batean izandako esperientzia bat kontatuko du norberak, objektu baten laguntzaz.</b> Iraupena: ots 11-ots 20</p>	
<p><b>1.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Kontsigna berria eman</b> (Q fitxa).</li> <li>▪ <b>Ariketa, aukerakoa</b> (nahi edo behar izanez gero): <b>Ekintza-aditzak + lehenaldia</b> lantzeko dinamika (R fitxa).</li> </ul>	 Q fitxa.pdf   R fitxa.pdf
<p><b>2.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasle talde batek <b>bere udako esperientzia bat kontatuko du, banaka.</b></li> </ul>	



<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>OHARRA:</b> <u>gogoratu “bihurrikerien” gaian grabatutako 2 taldeak berriz grabatuko direla. Horiek, 6. eta 7. ekintzan grabatuko dira. Gainerako egunetan beste ikasleek kontaktuko dute euren esperientzia.</u></li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Instituzionalizatu.</b> Aurreko egunetan landutako alderdietan (izan/ukan lehenaldiko formak, ekintza-aditzak, lexiko berria, elkarkariak...) jarriko da fokua: zein egitura agertu den, zein lexiko barneratu den, zer gertatuko zaien lagungarri hurrengo errutinerako (esperientziaren kontaktetarako)....ikasleekin batera ezagutza adostu eta jaso egingo da horma-irudietan. Horma-irudi horiek lanabes eta bitarteko izango dira hurrengo errutinetarako.</li> </ul>	
<p><b>3.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasle talde batek <b>bere udako esperientzia bat kontaktuko du, banaka.</b></li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Instituzionalizatu.</b> Aurreko egunetan landutako alderdietan (izan/ukan lehenaldiko formak, ekintza-aditzak, lexiko berria, elkarkariak...) jarriko da fokua: zein egitura agertu den, zein lexiko barneratu den, zer gertatuko zaien lagungarri hurrengo errutinerako (esperientziaren kontaktetarako)....ikasleekin batera ezagutza adostu eta jaso egingo da horma-irudietan. Horma-irudi horiek lanabes eta bitarteko izango dira hurrengo errutinetarako.</li> </ul>	
<p><b>4.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasle talde batek <b>bere udako esperientzia bat kontaktuko du, banaka.</b></li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Ekoizpenen araberako esku-hartzeak:</b> datozen egunetan ikasleen ekoizpenen gainean egingo dira esku-hartzeak (S fitxa).</li> </ul>	 S fitxa.pdf
<p><b>5.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasle talde batek <b>bere udako esperientzia bat kontaktuko du, banaka.</b></li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Ekoizpenen araberako esku-hartzeak</b> (S fitxa).</li> </ul>	
<p><b>6.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasle talde batek <b>bere udako esperientzia bat kontaktuko du, banaka.</b></li> <li>▪ <b>Talde osoaren ekoizpena grabatu:</b> kamera, giro-mikrofonoa eta, ahots grabagailua erabiliko dira.</li> </ul>	

<p>Ekoizpenen araberako esku-hartzeak (S fitxa).</p>	
<p><b>7.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasle talde batek <b>bere udako esperientzia bat kontatuko</b> du, <b>banaka</b>.</li> <li>▪ <b>Talde osoaren ekoizpena grabatu:</b> kamera, giro-mikrofonoa eta, ahots grabagailua erabiliko dira.</li> </ul> <p>Ekoizpenen araberako esku-hartzeak (S fitxa).</p>	
<p><b>8.EKINTZA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Talderen bat faltako balitz: <b>bere udako esperientzia bat kontatuko</b> du, <b>banaka</b>.</li> <li>▪ <b>Amaiera errutinari:</b> ikasleei gogoraraziko diegu duela hilabete hasitako bidea, sortutako txoko goxoa... aprobetxatuko dugu galdetzeko ea gustura egon diren, zer moduz sentitu diren kontu kontari...</li> </ul>	